



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

Bigarren hezkuntzako ikasle eta irakasleentzako gida didaktikoa





Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

EDUKIAK

SARRERA.....	3
Nortzuk gara.....	3
Non egiten dugu lan?	3
Nola egiten dugu lan?	3
ANDHRA PRADESH ESTATUA	4
Andhra Pradesh-ko klima	4
Ekonomia eta baliabideak	5
Gizartea.....	5
JARDUERAK.....	7
1. JARDUERA	7
2. JARDUERA	8
3. JARDUERA.....	10



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

SARRERA

3

Nortzuk gara

Vicente Ferrer Fundazioa, India landatarrean berealdiko pobrezia gorria desagerrarazteko epe luzerako soluzioak eskaintzen dituen erakundea da. Desertifikazioaren kontra borrokatuz; nekazal produkzioa sustatuz; eta bertako biztanleei osasuna, heziketa eta etxebizitza duin bat bermatzeko lan eginez eta emakume eta ezinduei arreta berezia emanez, garapen integralean oinarritutako programa darama aurrera. Vicente eta Anna Ferrer-ek, sortu zuten 1969an, Fundazioak Hindu kasta sistemaren barruan babesgabe eta baztertuta daudenen alde borrokatzeko konpromisoa du. *Dàlit* (peioratiboki "ukiezinak" deituak), *backward caste* (tribal taldeak) eta gutxietsien kastekin hain zuzen ere.

Non egiten dugu lan?

Fundazioak Indiaren hegoaldean dagoen Andhra Pradesh estatuan lan egiten du. Lurralde honetan jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza da eta beraz biztanleriaren gehiengoa baserritarra da. Baserritar biztanleri kopuru altua du. Eskualde oso tradizionala da eta kasta sisteman oso errotua dago, pobrezia tasa altuena kasta baixuenek erregistratzen dutelarik.

Nola egiten dugu lan?

Vicente Ferrer Fundazioak komunitate behartsuenek pairatzen duten pobrezia gorria desagerrarazteko lan egiten du. Komunitateek beraiek, eskualdearen garapena sustatzeko zeintzuk behar izan dituzten definitzen dute. Behartasun horiek pertsona, enpresa edo administrazio publikoak egindako kolaborazioen bidez aurrera eramandako proiektu finantziatu bihurtzen direlarik.

Vicente Ferrer Fundazioaren garapen integraleko programak; eskola osagarriak, ikasitakoa indartzeko eskolak, udako eskolak, bigarren mailako hezkuntzarako beka, gobernuaren eskoletarako azpiegitura laguntzak, landa lurraldeetarako osasun sare komunitarioa, elikadura programak, hospitaleak, prebentzio eta txerto kanpainak, basoberritze programak, emakume eta ezinduen elkarteak, etxegintza eta beste hainbat proiektu eta ekimen gehiago barneratzen ditu.





Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

4

ANDHRA PRADESH

ESTATUA

India, Asiaren hegoaldean kokatutako hedadura oso handiko herrialdea da (munduko zazpigarrena). Bere tamaina handia dela eta, azpikontinentetzat jotzen da. Bere azalera 3.287.260 km² da; Espainia baino sei aldiz handiagoa alegia. 1200 milioi biztanlerekin, planetako bigarren herrialderik jendetsuena da, Txinaren ondoren. Bi hizkuntza ofizial daude, hindia eta ingelesa. Hala ere, herrialdeko estatu desberdinetan beste 20 hizkuntza koofizial mintzatzen dira. India 28 estatutan banatuta dago. Gehiengoaren erlijio sinismena hinduismoan datza eta munduko hirugarren erlijiorik praktikatuena da, kristautasunaren eta islaman ondoren. Indiako biztanleriaren %81k, 900 milioi pertsona baino gehiagok, erlijio hinduista praktikatzen du (*hau da, 19 aldiz espainiako populazioa, hinduista da*).

Andhra Pradesh estatua Indiaren hegoaldean kokatzen da. Bere azalera Espainiaren erdia da gutxi gora behera eta 75 milioi biztanle ditu. Bertako hizkuntza koofiziala *Telugu* da eta munduko hamabostgarren hizkuntzarik mintzatutena da.

Andhra Pradesh-ko klima

Andhra Pradesh estatuko hego eta iparraren artean aldaketa batzuk ager daitezkeen arren, orokorrean klima erdi-idorra da. Euria era mugatua eta noizean behin baino ez du egiten; eta egiten duena urteko hilabete gutxi batzuetan kontzentratuta gainera. Indiako bigarren estaturik idorrena da eta horrek lehortea eta luraren desertifikazio arazoak dakartza. Ezau-garri hauek nekazaritzan eragin handia dute eta ondorioz, biztanleriarengan ere bai. Hau baita beraien jarduera ekonomiko nagusia.

Espainian gertatzen ez den bezala, urtea bi sasoi luzetan banatzen da: urtaro lehorra eta euri urtaroa. Azken hau ekain eta irail bitartean. Hilabete hauen artean, "Montzoi" fenomeno gertatzen da. Haize bolada indartsuek bat-bateko euriak ekartzen dituzten fenomenoari deritzo eta askotan uholde larriak sortarazten dituzte.





Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

Ekonomia eta baliabideak

Andra Pradeshko klimak eragin oso handia du biztanleengan. Izan ere haietako %70ak nekazaritzan baitu bere jarduera ekonomiko nagusia. Lehorreek zein uholdeek ondorio negatiboak dituzte uztaren eta lurzorua kalitatean. Kakahuetea da bertako laborantza nagusia. Produktu oso erabilia da Indiako gastronomian eta egunerokotasunean, baina bere prezio baxua dela eta, nekazariak ezin dira labore honetaz bizi. Vicente Ferrer Fundaziotik produktuen laborantza dibertsifikatzea bultzatzen da klimara moldatzen diren beste espezie batzuk landatuz. Azken urteetan lurzorua pobretzea gaitzesteko eta produktibitatea handitzeko epe labur, erdi eta luzeko beste laborantza batzuk landu dira: tomatea, banana edo mangoa adibidez.

Nekazaritzaz gain, beste lan eta jarduera ekonomiko batzuk ere burutzen dituzte eskualde honetan. Baserritar familia asko merkatariak ere badira beraien nekazal produktuak, abeltzaintzatik lortutako produktuak edo artisautzako artikulua saltzen dituztelarik merkatuetan. Beste jende askok enpresa pribatuetan eta, batez ere estatuko proiektuetan lan egiten du, etxegintzan eta errepideen eraikuntzan esaterako.



Gizartea

Tradizio hinduista jarraituz, pertsona bakoitza jaiotako den familiakoen kasta berekoa izango da. Sistema honetan kasta bakoitzeko kideek jokatutako konpartimendu batzuk jarraitu behar dituzte, gizartean rol jakin bat dute, eta soilik zenbait lanbiderekin balia daitezke.



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

JARDUERAK

7

1. JARDUERA

Helburuak:

- Oro har India herrialdeko errealitatea ezagutu eta Andhra Pradesh estatukoa bereziki.
- Ikasleei urruneko kultura, politika, ekonomia eta gizarte errealitate hori hurbilarazi.
- Gida didaktikoan emandako lurraldeari buruzko informazioa osatu.

Sarrera:

Aurreko orrialdeetan Vicente Ferrer Fundazioak lan egiten duen Andhra Pradesh estatuari buruzko funtseko gaien errepaso laburra egin dugu. Hala ere, azaletik egindako hurbiltze bat baino ez da izan, ñabarduraz beteriko lurralde konplexua baita eta hori ezin liteke orrialde gutxi batzuetan laburtu. Horregatik, India hegoaldeko eskualde honen informazioa osatzeko eta daukagun informazio faltaren zuloak betetzeko, taldeko ikerketa lan egingo dugu. Modu honetan, Andhra Pradesh-ko geografia, klima, ekonomia, heziketa, gizarte, kultura eta tradizioak ezagutuko ditugu.

Garapena:

Ikasleak bi taldetan banatuko dira aktibitatearen hasieran. Ikerketa klasikoan datzan jarduerak honetan, talde bakoitzak bere esku dauden baliabide guztiak erabiliz (bibliografia, liburutegiak, interneta etab.) aurretik pentsatutako gai bat garatuko du. Ikerketa burutzeko irakasleak zehaztutako denbora izango dute.

Denbora bukatutakoan, talde bakoitzak ikerlanean lortutako emaitzak beste ikasleekideei azalduko dizkiete horretarako behar dituzten tresna guztiak erabiliz (gardenkiak, ordenagailuz egindako aurkezpenak, ikus-entzunezko materiala, testu laguntza, etab.).

Talde bakoitzak bere ikerlanekin lortutako material guztia batuz, Andhra Pradeshko erabateko gida itxuratuko dute klase guztiarekin partekatu ahal izateko.

Ikerketarako gaiak:

Ikasleek gai hauek garatuko dituzte (zati bat edo gai osoa izan daitezke, denboraren arabera):

Ingurunea

- *Indiako klima*: Indiar zonaldeetako klima ezberdintasunak. Andhra Pradeshko klima. Montzoi fenomenoak. Lehortek eta uholdeak.
- *Flora eta Fauna*: Andhra Pradeshko landaretza. Fauna eta abeltzaintza. Basoberritzea.
- *Geografia fisikoa*: Indiako istripu geografiko nagusiak. Andhra Pradeshko geografia fisikoa.

Politika eta historia

- *Indiako sistema politikoa*: Indiako lurralde zatiketa. India eta Andhra Pradeshko sistema politikoa.
- *Oraintsuko historia*: Indiaren independentzia. Aberriaren gurasoak. Gandhi. Indiako independentziaren ondorengo politika.
- *Historia*: Indiaren jatorria. Indiatik pasatutako zibilizazioak. Kolonizazio britainiarra.



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

Ekonomia

- *Ekonomia:* Indiako sistema ekonomikoa. Inportazioak eta esportazioak. Zerbitzu sektorea. Andra Pradeshko ekonomia eta produkzioa. Industria. Nekazaritza.

Gizartea

- *Erlijioa:* Hinduismoa. Jainko eta Jainkosa hinduista nagusiak. Andhra Pradeshko jainkotasunak. Erritu hinduistak. Indiako beste erlijioak.
- *Kastak:* Kasta-sistema. Banaketa soziala. Kasta bakoitzaren eskubideak eta eginbeharrak. Talde tribalak. Dálit. Backward castes.
- *Tradizioak:* Ospakizun zibilak. Erljio ospakizunak. Adostutako ezkontzak. Ezkontza hinduisten zeremonia.
- *Kultura:* Literatura. Artea. Bollywood zinema. Indiako ohiko joko eta kirolak (*cricket, hockey, kho kho...*)

Irakasleak edo beste edozein ikasleak proposatutako beste edozein gai ere landu daiteke India eta Andra Pradeshko buruzko informazioa osatzeko.

2. JARDUERA

Helburuak:

- India eta batez ere, Andra Pradeshko biztanle sektore batzuetako giza eskubideen egoerari buruz ikasleak konbentzitzea.
- Biztanleen giza eskubideak zeintzuk diren eta hauek babesteko nazioarteko zein mekanismo dauden ezagutzea.
- Indiar legedia eta giza eskubideak babesten dituzten nazioarteko akordioetan sakontzea.

Sarrera:

Indiako konstituzioak eta legediak pertsona guztien eskubide berdintasuna, 14 urtera arteko neska zein mutilentzako heziketa eskubidea, etxebizitza eskubidea, elbarritasunen bat duten pertsonenganako babes berezia eta emakume zein gizonezkoen arteko berdintasuna onartzen dute. Hala ere, errealitatea ez da befi horrelakoa: Andra Pradesh bezalako landa lurralde tradizionalen eskubide hauek sarritan urratzen dira, jende askok desberdintasun eta diskriminazioak jasaten baitituzte beraien baldintza sozial, fisiko edo sexualengatik.

Garapena:

Jarduera honetan, ikasleak, Nazio Batuetako Goi mandatari bihurtuko dira eta eskubide zibilak zein giza eskubideak nola betetzen diren ikertu beharko dute. Horretarako, Andra Pradeshen diskriminazioa pairatzen duten pertsona ezberdinen hainbat kasu azalduko zaizkie. Ikasleek, talde txikietan banatuta, txosten bat sortu beharko dute bertan zein eskubide bortxatzen diren azalduz eta hau konpontzeko zein lege ezarri behar den gehituz. Ikerketa hau garatzeko eta pertsona horien eskubideak zeintzuk diren aurkitzeko, nazioarteko legedia eta indarrean dagoen legedia nazionala kontutan izan beharko dituzte.

Materialak:

Irakasle taldeak giza eskubideak sustatu eta babesten dituzten nazioarteko hitzarmenei eta Indiako legediari buruzko informazioa kontsultatu beharko du. Batez ere ondorengo sekto-



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

reetan jarri beharko du arreta: emakumea, heziketa, haurtzaroa, osasuna, etxebizitza eta ezintasunen bat duten pertsonak.

Fitxak:

1. Fitxa: Dilsha

- 15 urteko emakumea, Yalapallin bizi da, Andra Pradeshko herri txiki batean.
- Baserritarren alaba, bere gurasoek ezkontza adostu dute 19 urteko bere lehengusuarekin. Hau ondoko herriko arotza da. Dilshak ikasketak utzi beharko ditu.
- Gurasoek ospakizunaren kostuak ordaintzaren truke ezkontza adostea lortu dute. Urrezko besoko bat ere jasoko dute.
- "Ni etxean bakarrik uzteko beldur dira nire gurasoak. 15 urterekin ezkondu nahi naute herriko gizonaekin ez baitira fidatzen" dio Dilshak.

2. Fitxa: Satnam

- 41 urteko gizona. Anantapur barrutiko herrixka txiki batean bizi da. Baserritarra da eta Dàlita "Ukiezina" da. Kasta sistematik at dago.
- Gizon aberats batentzat lan egiten du. Oso diru gutxi irabazten du bere alabaren ezkontzarako eskatutako mailegua aberatsari ordaindu beharra baitauka.
- Bere seme gazteenak, 11 urte ditu eta lehen hezkuntzako azken mailan dago. Datorren urtean bigarren hezkuntza ikasten hasi beharko luke baina Satmanek ez daki bere semearen ikasketak ordaintzerik izango duen..
- "Nekazaritzatik bizi naiz eta ez dut beti diru nahikoa irabazten. Uste dut datorren urtean hobeto izango dela nire semea eskolara bidali beharrean lanean hastea, horrela etxean lagunduko luke" dio Satmanek.

3. Fitxa: Kavita

- 16 urteko emakumea. Nadialatik hurbil dagoen herrixka batean bizi da. Baserritar eta merkatari txikien alaba da.
- Gorra da, ez da eskolara joaten eta etxetik apenas irteten da. Analfabetoa da. Etxean eta bere anai-arreba txikiak zaintzeaz arduratzen da.
- "Alaba oso ona da eta bere anai-arrebekin oso maitekorra da. Ez dakit zer egingo genukeen bera gabe. Duen urritasuna medio, ezin du ezer egin hor kanpoan eta beraz, ezinezkoa izango da bera ezkontzea" dio bere aitak.

4. Fitxa: Anil

- 5 urteko mutila. Gurasoak GIBaren ondorioz hil ziren bera jaio eta denbora gutxira.
- Adineko izeba batekin bizi da bere familiako beste inork ez baitu bere kargu egin nahi.
- "Ospitalera eramatea eta bera zaintzea asko kostatzen zait. Bizirauteko oso bitarteko gutxi dauzkat alarguna naizelako..." dio bere izebak.



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

3. JARDUERA

Helburuak:

- Andra Pradeshhi buruz ezagutu eta ikasitakoa era ordenatuan aurkeztea.
- Andra Pradeshen irudi globala aurkeztea, bere arazo, alde positibo eta kultur aniztasuna erakutsiz.

Sarrera:

India landatarrari buruzko aurkezpen zehatza egiteko momentua heldu da, beraz orain arte ikasitakoa antolatu beharko duzue India landatarraren errealitate orokor eta osoa erakusteko. Horretarako Andra Pradeshko bizimoduarekin zer ikusia duten ezaugarri desberdinei buruzko informazioa errepasatuko dugu, ikasgela guztiak landutakoari amaiera jartzeko behin betiko lan bat eginez.

Garapena:

Ikasgela guztiaren artean egunkari osagarri bat sortuko dugu. Osagarri hau egunkari batzuetan agertzen den liburuxka bat da, gai gehigarri jakin batzuei buruzkoa izaten da: osasuna, informatika, kirol edo kultura gertaeraren bat... Jarduera honetan India landatarrari eta Vicente Ferrer Fundazioari buruzko osagarri bat sortzea proposatzen da.

Ikasleak talde desberdinetan banatuta gai honen inguruko hurrengo aspektu hauek landuko dituzte:

- *Baliabide naturalak*
- *Gizarte desberdintasunak*
- *Ekonomia*
- *Erlijioa*
- *Vicente Ferrer Fundazioaren proiektuak*
- *Kultura eta tradizioak*
- *Etab.*

Egunkari osagarri batek hurrengo atalak izaten ditu normalen:

- *Editoriala:* Osagarriaren aurkezpena da. Lan hau zergatik egiten den, orrialdeetan zer aurki dezakegun eta bere edukiak zein ardatz jarraitzen duten argitzen da.
- *Erreportajea:* Gai bat sakonean azaltzeko hiru-bost orrialde bitarteko idazlana da, aurrekari historikoak eta gaur egungo egoera barne hartuz. Honako hauek izan daitezke erreportajerako adibide batzuk: laborantzak (lurzoruaren pobrezia edota basoberritzea), uraren eta lehortearen arazoak, Vicente Ferrer Fundazioaren eskola osagarriak, emakumearen egoera India landatarrean; erlijio ospakizunak...
- *Perfila:* Orrialde batean edo bitan pertsonaia garrantzitsu bati edo kolektibo bateko adierazgarria den pertsona bati buruzko azalpen eta deskribapena. Hona hemen aukera batzuk: politiko bat, gizarte-eremuko arduradun bat, komunitate tribaleko kide bat, dálit bat edo apaiz bat ere izan litezke.
- *Albisteak:* Aurretik aztertutako leku konketu batean bizi izandako gertakari bati buruzko, orrialde bateko hiruzpalau albiste. Bere atalak, izenburua, azpтитulua, hiru



Gazteak gara eta India ezagutu nahi dugu!

edo lau lerroko sarrera txikia eta azkenik albistearen gorputza agertu behar dira. Honatx izenburu izan daitezkeen batzuk: "Presa baten eraikuntza bukatu da", "Pongal jaialdia hasi da", "Vicente Ferrer Fundazioaren lanbide eskola inauguratu dute"

- *Iritzi-zutabea*: Orrialde batean edo bitan, gai jakin bati buruz autore desberdinek egiten duten epaiketa. Zutabeak beti autoreen sinadura daramate. Hona hemen iritzia emateko erabili daitezkeen gai batzuk: dotearen tradizioa, kasta sistema, dáliten egoera etab.
- *Txostena*: Bi orrialdetan egiten den inkesta edo estatistika baten datuen azterketa da. Datuak interpretatuz ondorioak ateratzen dira. Hona hemen txosten bat egiteko gai desberdin batzuk; emakume eta gizonen soldata; eskolaratu gabeko neska eta mutilen zenbatekoa; ezkontzen batzuz besteko adina...
- *Argaki erreportaia*: Gai baten inguruan ordenaturiko argazki bilduma. Argazki bakoitzaren azpian azalpen testu labur bat jarriko da epigrafe erara. Adibide batzuk: erlijio jaialdiak, Andra Pradeshko paisaia, lehen hezkuntzako eskolak, sukaldaritza tipikoa...
- *Besteak*: Osagarriek askotan beste atal batzuk izaten dituzte, karikaturak eta binetak, zinema kritikak edo kirol iruzkinak, musika edo testu aipamenak, etab.

Ikasleek barneratutako ezagupenak erabili beharko dituzte. Horretaz gain internet bidezko kontsultak, hemerotekak, liburutegi birtualak eta irakasleek erraztutako materiala erabili ahal izango dute osagarria informazio zuzenaz betetzeko. Lanaren amaieran, zuzendaritza rola hartu duten ikasleek osagarria maketatuko dute.

Aholku gisa, irakasle eta ikasleek horrela uste badute behintzat, osagarri digitala edo ikus-entzunezko bertsioa egin daiteke, dokumental erara.



Elaborazioa:

Vicente Ferrer Fundazioko Sentsibilitate Unitatea

Textuak:

Alberto H.R.

Ilustrazioak:

Sergi Cardó

Kolorea:

Mardigan

Maketazioa:

Rafael Aguilar

Sortzea eta zuzendaritza:

Kidekom